misma pregunta al señor Ardanza, que confío nos lo desmienta o nos lo explique en su caso a la Cámara representativa.

Después de haberle escuchado esta mañana se acrecientan también algunas reservas en el acuerdo: los principios que en materia económica, sanitaria, educativa, los principios del papel de la sociedad y del Estado que ha definido el señor Ardanza a nosotros nos parecen en algunos casos difícilmente compatibles con una política socialista. Nos parece que hay materias de desarrollo legislativo que van a necesitar una cierta identidad en este sentido, y desde nuestro punto de vista nuestra reserva todavía se acrecienta.

Pero, y terminando ya con el contenido de los acuerdos, yo he de decir que -también es cierto- no estamos en desacuerdo con ninguno de los párrafos del acuerdo, no estamos en contra de la literalidad del texto, y por eso no podemos estar, y no lo estamos en modo alguno, frente, contra el acuerdo que ustedes han suscrito.

Ampliación del acuerdo. Yo he leído y le he escuchado esta mañana con enorme atención las expectativas de ampliación del acuerdo. Yo sólo le he de decir que estoy completamente de acuerdo, y que la ampliación del acuerdo debe comenzar por el Grupo Parlamentario Nacionalista y por el Partido Nacionalista Vasco, para avanzar suscribiéndolo los demás grupos, a lo que estamos dispuestos en los puntos que se considere oportuno. Lo que también señalamos es que preceptivamente, lógicamente, tiene que estar previamente ratificada la voluntad del partido mayoritario. Y hoy me atrevo a trasladar un compromiso al candidato y a esta Cámara: en las materias que no son estrictamente pacto de legislatura, que van más allá del papel o de la función de esta Cámara, la Coalición Popular del País Vasco se compromete a completar el acuerdo trabajando sobre estos textos, siempre y cuando, lo reitero, el Grupo Parlamentario Nacionalista y el Partido Nacionalista Vasco lo hagan previamente.

Trascendencia histórica del acuerdo. Yo considero que la trascendencia histórica del acuerdo no está en el contenido. Estará en el día a día del acuerdo, estará en su capacidad de expansión a la sociedad vasca, estará en su capacidad de penetración, estará en su capacidad de ampliación. Se equivocan quienes piensan que lo difícil ha sido y es la formulación del acuerdo; lo difícil viene ahora, y hasta el momento la experiencia no es halagüeña, como decía. Nadie debe echar las campanas al vuelo, nadie debe exagerar la trascendencia del acuerdo y levantar unas expectativas que luego pueden generar frustración, como nadie tampoco, por fuertes que sean nuestras reservas y nuestro escepticismo, nadie debe colocarse frente al acuerdo.

Señoras y señores diputados, que mis reservas serias y sustanciales no confundan a nadie de cuál es la posición de nuestro grupo en este acuerdo. Como antes les decía, el tiempo nos dirá si estamos ante una auténtica dinámica de acuerdo que hoy comienza, que se proyecta y amplía, o estamos ante una operación de conveniencias egoístas de puro maquillaje político, de papel mojado, que quizás lo necesitan los partidos políticos que lo suscriben, pero que en modo alguno lo desea el País Vasco.

Yo sé que algunos interpretarán este escepticismo ante lo que se trata de vender como un hito histórico como una rabieta de nuestro grupo por no haber sido elegido como interlocutores del acuerdo. Otros dirán que es la gran frustración ante el revés que puede sufrir esa

argituko dion ustetan.

Gaur goizean horri entzun ondoren gehitu egin zaizkit akordioarekiko nituen hesiak: Ardanza jaunak eman dizkigun ekonomi, osasunketa, hezkuntz mailako araupideei, eta gizartearen eta Erresumaren eginkizunari buruzkoei sozialisten politikarekin elkartezinak deriztet. Maila honetan nolabaiteko nortasun-zehaztapena beharko duten legezko egiterapen-gaiak ere badirela uste dugu, eta gure aldetik hesia handitu egiten da.

Baina, eta akordioen mamiari amaiera emanez, hitzarmenaren ahapaldi batek berak ere ez duela gure ezadostasunik aitatu behar dugu -eta hau ere egia da- ez gaude, ez, testuaren hitzen aurka, eta ez gaude, inola ere, zuek izenpetu duzuen hitzarmenaren aurrez-aurre, hitzarmenaren aurka.

Hitzarmenaren hedaketa. Hitzarmenaren hedaketa-asmoak arreta handiz entzun eta irakurri ditut gaur goizean. Nik hauxe bakarrik esango nizuke, erabat ados nagoela, eta hitzarmenaren hedaketak Legebiltzar-Talde Abertzaletik hasi behar duela, ondoren beste taldeotara hedatuz, egokitzat jotzen diren ataletan gu ere prest gagozkizuelarik. Dena den, arauz, arrazoibidez, alderdi gehiengodunaren borondatea aurretik berronetsi behar dela esan behar dut. Eta gaur lehendakarigaiari eta Legebiltzar honi konpromezu bat luzatzen ausartuko naiz: zehazki legegintza-aldiko hitzarmen ez diren gaietan, Legebiltzar honen betebeharrak gainditzen dituztenetan, Euskal Herriko Talde Popularra bere hitza emateko prest dago, testu hauek landuz akordioa osatzeko, baina hori bai, eta berriz diot, Legebiltzar-Talde Abertzaleak eta Euzko Alderdi Jeltzaleak, aurretik sinatzen badute.

Akordioaren garrantzi historikoa. Nik pentsatzen dut akordioaren garrantzi historikoa ez dagoela mamian. Akordioaren egunez-egunekoan egongo da, euskal gizartean hedatzeko ahalmenean, sakontzeko ahalmenean, osatzeko ahalmenean egongo da. Oso oker dabiltza zailena akordioaren erabidea izan dela eta dela uste dutenak, zailena orain dator, eta orain arteko esperientzia ez da oso atsegina, esaten nuen bezala. Inork ez beza ezkilarik jo, inork ez beza akordioaren garrantzia gehitu eta gerora zapuztea sor dezakeen gehiegizko itxaropenik eskaini; bestalde, gure hesiak eta sinesgaiztasuna handiak badira ere, ez bedi inor akordioaren aurrez aurre jarri.

Diputadu jaun-andreok, nere oinarrizko mugaketa sakonek ez bezate inor nahastu, gure taldeak akordioari buruz duen jarrera dela eta. Lehen esaten nizuen bezala, geroak esango digu gaur hasiz, zabaltzen eta hedatzen doan benetako akordio-dinamika baten aurrean gauden ala Euskal Herriak nahi ez badu ere, akordioa izenpetu duten alderdiek agian behar duten paper bustiko edo berekoikeriaz betetako komenientziazko apainketa politiko baten aurrean gauden.

Nik badakit kondaira-zedarri gisa saldu nahi digutenarekiko gure sinesgaiztasun hau zenbaitek gure taldea akordiorako solaskide ez aukeratu izanagatiko ernegalditzat hartuko dutela. Beste batzuk, berriz, hauteskunde aurretik zentru-eskuinekoek Euzko Alderdi Jel-

gran operación política de gran envergadura del centro-derecha preelectoral con el Partido Nacionalista Vasco, operación que, por cierto, yo lo he de decir aquí, en lo que se refiere al contexto vasco la considero inviable. Nada más lejos de la realidad, y no crean que trataré de convencerles. Me basta la tranquilidad de quien cree que cumple con su obligación pese a que en este momento pueda ser acusado de escéptico o de agorero. En definitiva, nuestro grupo, desde su plataforma de oposición, valorará la consistencia, la coherencia y la profundidad del acuerdo; tratará de ayudar a consolidar el auténtico acuerdo entre las fuerzas políticas, los principales problemas de este país, ya que nuestro grupo quiere, por encima de todo, lo mejor para este país.

Tercer gran reto que creo que tiene el señor Ardanza, la normalidad en el cumplimiento de la legalidad. Hace tan solo unos días un dirigente, un miembro de Herri Batasuna se rasgaba las vestiduras por la declaración que acababa de hacer el señor Ardanza a la salida de su entrevista con el Presidente González, y, desde mi punto de vista, creo que esto exige una reflexión, porque la normalidad en el cumplimiento de la ley, por desgracia, en este país es algo excepcional. Y la primera cuestión ya la ha citado usted: es que usted va a ser, además del representante de todos los vascos, el representante ordinario del Estado en la Comunidad Autónoma, y eso además no depende de usted, no depende de que usted sea muy nacionalista o poco nacionalista; es una cuestión obvia en tanto en cuanto se acepte el Estatuto de Autonomía. Por eso, cuando ese dirigente de Herri Batasuna señalaba que era un gran escándalo esa declaración, yo pensaba una vez más que las posiciones de Herri Batasuna no se basan en la radicalidad, sino que se basan más bien en la pura y simple ignorancia política.

Nos parece además que hay cuestiones que exceden del cumplimiento estricto del precepto, esto es, que constituyen consecuencias de puro sentido común. Además del acatamiento a la ley de Banderas, además del acatamiento a las sentencias del Tribunal Constitucional, además, lógicamente, de ese sentido de sentirse uno el representante del Estado en la Comunidad Autónoma, ¿cómo no va a visitar, por ejemplo, el representante ordinario del Estado, alguna vez algún acuartelamiento de las Fuerzas de Seguridad del Estado, que además están padeciendo una situación ciertamente angustiosa y que viven una situación enormemente agobiante? ¿Cómo no va a tratar de normalizar las relaciones con otras Comunidades Autónomas de otras regiones de España, que hoy por hoy ven en los vascos un recelo imperdonable, y que en buena medida nos hemos ganado a pulso? Por el contrario, yo creo que hay que tratar de normalizar, hay que tratar de desdramatizar, de estabilizar, acabar definitivamente con la transición en este país. ¡Si, además, poco más podemos hacer los políticos' ¡Si yo creo que en buena medida es lo único que podemos hacer los políticos en esta tierra' Lo único que podemos hacer es crear esta situación de estabilidad. Nosotros no vamos a relanzar nunca a este país. ¡Nunca lo han relanzado los políticos' Este país ha sido relanzado por la propia sociedad, por el tejido vivo de la sociedad, y los políticos bastante haremos con crear un clima estable, en el que estas circunstancias permitan el despegue económico y social de este país.

Otro reto que tiene el señor Ardanza es la constitución definitiva de plataformas de encuentro. Lo ha señalado esta mañana, y me parece que es un acierto: en este país siguen sin existir lugares de encuentro y plataformas de diálogo en temas fundamentales. Y ha dicho el señor Ardanza: "Aquí hace falta mecanismos excepcionales, para resolver unas situaciones excepcionales".

tzalearekin egin beharreko politika-eragiketa handi horrek, eta nere ustez -esan dezadan hemen- euskal testuinguruan ezinezkotzat jotzen dudan horrek, sortarazi diezagukeen zoritxarraren aurreko egundoko zapuzketa dela esango dute. Egiatik oso urruti dabil uste hori, eta ez pentsa geureganatzen saiatuko naizenik. Aski dut, bere eginkizunekin bete duela uste duenaren lasaitasunarekin, nahiz eta une honetan norbaitek sinesgaitzat edo aztitzat hartu. Azken batean, gure taldeak, aurkaritzako bere aulkitik akordioaren zindotasuna, koherentzia eta sakontasuna neurtuko ditu; indar politikoen artean, herri honetako arazorik nagusienetan, benetako akordioa lortzen saiatuko da, izan ere, gure taldeak, ororen gainetik, herri honentzat hoberena nahi du.

Ene ustez, Ardanza jaunak duen hirugarren herronka: legezkotasuna betetzean datzan normaltasuna. Orain dela egun gutxi zuzendari batek, Herri Batasuneko taldekide batek, Gonzalez Presidentearekin izandako elkarrizketaren ondoren eginiko adierazpenak zirela eta, bere jantziak urratzekoak egin zituen, eta, ene ustez, honek gogaketa eskatzen duela uste dut, zeren eta legezkotasuna betetzean datzan normaltasuna, herri honetan zoritxarrez, aparteko gauza bait da. Eta lehenengo puntua aipatu duzu zuk: zu, euskaldun guztion ordezkari izateaz gainera, Erresumako ordezkari agizkoa zara Elkarte Autonomoan, eta hori ez dago gainera zure esku, horrek ez dauka zerikusirik zu oso abertzale edo erdipurdiko izatearekin; Autonomi Estatutua onartuz gero bidezkoa da, besterik ez. Beraz, Herri Batasuneko buruzagi horrek direlako adierazpenak eskandalagarriak zirela zioenean, nik nerekiko hauxe nioen, Herri Batasunaren jarrera ertzekotasunean ez baino ezjakintasun politiko garbi eta arruntean dagoela oinarriturik.

Bestalde, arau hutsa gainditzen duten gaiak ere badirela deritzot, hau da, zentzuzkoak direnak. Banderen legeari men egiteaz gainera, Konstituzio-Auzitegiaren erabakiei men egiateaz gainera, Autonomi Elkartean bere burua Erresumako ordezkari somatzeaz gainera, nola ez da, bada, adibidez, Erresumako ordezkari agizkoa behin edo behin, egoera larria jasaten eta ordu neketsuak bizi dituzten Erresumako Segurantza-Indarren koartelen batera agertuko? Nola ez da, bada, gaur egun euskaldunongan barka ezinezko susmoa dakusaten, Espainiako beste eskualdeetako Elkarte Autonomoekiko harremanak bere onera itzultzen saiatuko, neurri handi batean gerok ereindako gaitza izanik? Bestalde, herri hau bere onera itzultzen saiatu behar dugu, desdramatizatzen, finkatzen, behin betiko transizioa amaitutzat eman behar dugu. Bai|, lurralde honetako politikook, gainera, ezer gutxi egin genezake. Finkotasuna lor genezake, besterik ez. Guk ez dugu herri hau berriz indarrean jarriko. Politikoek ez diote inoiz indar berririk eskaini. Herri hau gizarteak berak indartu izan du, gizarteko indar biziek, eta politikook aski dugu giro aproposa sortzearekin, herri honen ekonomi eta giza abiadari ekiteko behar dituen baldintzak eskainiz.

Ardanza jaunak elkarrizketa-erakundeak behin betiko sortu behar ditu, hauxe du beste erronka. Gaur goizean aipatu du, eta asmatu duela deritzot: herri honetan ez dugu oraindik elkartze-gunerik eta elkarrizketa-erakunderik oinarrizko gaietan. Eta hauxe zioen Ardanza jaunak: "Hemen, egoera bereziei erantzuteko tresna bereziak behar ditugu". Eta dotore azaldu digu

Esta situación que él ha descrito muy bien, cuando era Alcalde de Mondragón y cuando uno constataba que allí no existía ni libertad, ni democracia, que las gentes viven atenazadas por el temor de unos cuantos que se amparan cobardemente en las metralletas; esta referencia que hacía esta mañana a esa situación de falta de libertad en muchos municipios es una realidad, y ello exige tomar las medidas excepcionales, pero no desde Madrid. Hay que tomar las medidas excepcionales desde el País Vasco, desde las instituciones vascas, y hacen falta mecanismos de carácter excepcional.

¿Cuál es la excepcionalidad que yo estoy solicitando? Simplemente una, precisamente no legal ni jurídica: simplemente una mayor dosis de unión entre las fuerzas políticas que la que normalmente funciona o constituye lo normal, lo habitual en una democracia estable, donde ciertamente cada cual puede jugar con más independencia el papel político que le corresponde. Simplemente es eso. Y, entonces, creemos las plataformas adecuadas en ese sentido: en el desarrollo estatutario, en materia de terrorismo -para que podamos empezar a intercambiar puntos de vista en esta cuestión-, ante el próximo ingreso de España en el Mercado Común -hace falta otra comisión para que tratemos de abordar conjuntamente ese reto-, y lo mismo ante la reconversión industrial e incluso ante esto que se está produciendo en este país, que es esta crisis de valores tan enorme que padecemos, esta crisis de valores que está produciendo estos efectos tan dramáticos de la droga, del paro juvenil, de la crisis incluso de religiosidad que estamos padeciendo, de crisis de instituciones que estaban asentadas sólidamente en este país.

Otro reto, señor Ardanza, la consecución de la paz y la erradicación del terrorismo. En el tema del terrorismo está casi todo dicho, pero, no nos engañemos, casi nada hecho desde este país, y creo que es la gran paradoja. Y lo primero que le diría es que, para querer la paz y la convivencia, llámese como se quiera, lo primero que hay que hacer es quererla de verdad, y por ello hay que colocarla, dentro de todos los objetivos políticos que tenemos los grupos, en lugar muy destacado. En primer lugar, a mucha distancia de cualquier otro. Y hay que decir que hoy no quiere la paz quien posponga este objetivo, esta necesidad al último logro de proceso del desarrollo del Estatuto de Autonomía.

Tres puntos en esta cuestión de la violencia y el terrorismo. La declaración de Madrid es importante: ¿cuándo entenderemos que la desunión en esta cuestión es la principal arma que tiene ETA en esta tierra? Más que en la cobertura territorial que le da el sur de Francia, más que en la cobertura política que le da Herri Batasuna, ETA tiene su fortaleza en la desunión de los grupos políticos vascos. Y ¿alguien cree que ETA subsistiría si todos los grupos -y me estoy refiriendo en principio a los que están en esta Cámara- tuviéramos una posición unitaria en tal sentido? Yo no sé el tiempo que tardaríamos, pero con seguridad tardaríamos poco...

El Sr. **PRESIDENTE**: Abrevie, señor Mayor Oreja.

El Sr. **MAYOR OREJA**: De acuerdo, señor Presidente.

También hay que dar una alternativa clara en el problema de la seguridad ciudadana, y eso ha sido desde mi punto de vista un vacío en su intervención. Hay que avanzar en la estrecha coordinación entre las Fuerzas de Seguridad del Estado y la Policía Autónoma. Es preciso asignar, repartir las competencias, las funciones,

delako egoera, Arrasateko Alkate zelarik, han inolako askatasunik, inolako demokraziarik gabe, jendea, metrailleten babes koldarra zuten batzuren izupean bizi zela adierazi duenean; gaur goizean udal askotako askatasunik ezari buruz egin duen aipamen hori egi hutsa da, eta horrek neurri bereziak eskatzen ditu, baina ez Madrilen. Euskal Herrian hartu behar ditugu neurri bereziok, euskal erakundeetan, eta horretako tresna bereziak behar ditugu.

Zein motatako berezitasuna ari natzaizue eskatzen? Bat bakarra, eta ez lege-mailakoa: demokrazia finkoan alderdi bakoitzak, dagokion betebehar politikoa, askatasun handiagoz betetzen badu ere, hemen indar politikoek elkartasun handiagoz jokatu behar dutela. Horixe besterik ez. Eta, sor ditzagun horretarako erakunde egokiak: Estatutu garapenari dagozkionak, terrorismoari dagozkionak -arazo honen aurrean bakoitzak dituen iritziak jasotzeko-, Bateratutako Merkatuan Espainiaren berehalako sarrerari buruzkoak -beste batzorde bat ere beharko dugu herronka horri denon arteko erantzun egokia eman nahi badiogu behintzat-, eta antzeko zerbait industri birregituratzearen aurrean, eta baita herri honetan gertatzen ari zaigun balio-krisialdi beldurgarriaren aurrean ere, droga, gazteen langabezia, jasaten ari garen erlijio larrialdia, eta herri honetan ongi finkaturik zeuden erakundeen kinka larria sortarazi dituen krisialdi horren aurrean.

Beste herronka, Ardanza jauna, bakearen lorpena eta terrorismoaren ezabaketa duzu. Terrorismoari buruz ia dena esana dago, baina, ez ditzagun geure buruak loxindu, herri honetan bertan ia ezertxo ere egin gabe, ordea, eta horixe dela uste dut paraxodarik handiena. Eta lehenik esango nizukeen gauza hauxe da, bakea eta elkarbizitza nahi badira, izenak izen, benetan maitatu behar direla, eta horretako talde politikook ditugun jomuga guztien artean, gune nabarmenean kokatu behar direla. Beste edozeinen aurretik, lehenik. Eta helburu hori atzeratzen duenak, Autonomi Estatutuaren garapenaren azken lorpenaren beharkizun hau atzeratzen duenak, gaur ez du bakerik.

Indarkeria eta terrorismoari buruzko arazo honetan hiru puntu. Madrilen egindako adierazpena garrantzitsua da. Noiz ulertuko ote dugu ETAk lurralde honetan duen armarik nagusiena puntu honetan ados ez jartzea dela? ETAk, Frantziako hegoaldeak eskaini ohi dion babesean edo, Herri Batasunak eman ohi dionean baino indar handiagoa dauka euskal talde politikoen ezadostasunean. Eta norbaitek uste al du ETAk bizirik iraungo lukeela talde guztiok -eta Legebiltzar honetan daudenei buruz dihardut- puntu horretan parada berdina izango bagenu? Nik ez dakit zenbaterainoko denbora beharko genukeen, baina,dena den, ez gehiegi...

**LEHENDAKARI** jaunak: Laburtu, Mayor Oreja jauna.

**MAYOR OREJA** jaunak: Bai, Lehendakari jauna.

Giza-segurantzari buruz ere hautabide argia eman behar da, eta horixe duzu ene ustez hitzaldiaren hutsune bat. Erresumako Segurantza Indarren eta Ertzaintzaren arteko harremanak sendotzen joan behar dugu. Gaitasunak eta era guztietako egitekoak, badaezpadakoak eta bortxazkoak, egokitu eta banatu egin behar dira. Bi po-

unas de carácter preventivo, otras de carácter coactivo. Hay que delimitar funciones y competencias entre una y otra Policía. Hay que reactivar esa Junta de Seguridad, que no funciona y que no se reúne. Y es preciso que, desde todas las instituciones -las instituciones autonómicas, las instituciones del Estado- se respalde inequívoca y decididamente a la acción de ambas Policías.

Tercera idea. El problema de la intolerancia y el terrorismo, usted sabe muy bien, no se limita a ETA y a sus atentados. Hay que dar respuesta, valga por caso, a la coacción de algunos sindicatos, tales como CUIS o tales como LAB, que están ejerciendo una presión intolerable en muchas empresas de este país, que lo único que pretenden es acabar con la vida de las empresas, que buscan la destrucción y nadie, por lo que se ve, es capaz de entender la indefensión en que se encuentran muchos empresarios en este país.

Y ya termino. Qué duda cabe, otro reto fundamental que tiene el señor Ardanza es la vertebración interna del País Vasco. Ciertamente, después de escucharle, sus palabras, su filosofía se acerca más a nuestras tradicionales posiciones, y creo incluso que la referencia que ha hecho al recurso del Tribunal Constitucional cuando menos nos llena de satisfacción, en el sentido de que puede ser un instrumento de normalización en este país. ¿Cuáles son los puntos en los que mantenemos de modo particular todavía algún desacuerdo?

El Sr. **PRESIDENTE**: Abrevie, señor Mayor Oreja.

El Sr. **MAYOR OREJA**: De acuerdo, señor Presidente.

En primer lugar, discrepamos de la valoración que hace de la LTH. No creemos que es que haya buenas o malas interpretaciones. Creemos que la LTH fundamentalmente es una mala ley. En segundo lugar, no estamos de acuerdo con la fórmula prevista de riesgo compartido, y no me extenderé en subrayar, ya lo dijimos en su momento, por qué se desvirtúa el concepto de cupo fijo. Nosotros, lo que sí quisiéramos es trasladar una reflexión a la Cámara: si nosotros, al vertebrar internamente el País Vasco, nos estamos apoyando en conceptos tales como disciplina férrea o solidaridad, o supremacía de unas instituciones sobre otras, necesidad de control y planificación, ciertamente creo que estamos haciendo un flaco favor en defensa de la singularidad y especificidad que reclamamos para el País Vasco en su conjunto en el territorio español. Si decimos, por ejemplo, que hay que entrar en un concepto de riesgo compartido en la recaudación, mal podremos defender nuestro sistema de cupo frente a algunos planteamientos que nos hagan desde el Gobierno de Madrid. No caben argumentaciones opuestas, una para el País Vasco y territorios históricos y una para Madrid y País Vasco. Hace falta una coherencia en la defensa de esas posiciones.

En definitiva, nosotros en todo caso coincidimos con su planteamiento sobre esta materia en algunos puntos. Insistimos en que apostamos por un país descentralizado, por un país con clara personalidad de Guipúzcoa, de Vizcaya y de Álava, con instituciones comunes fuertes especialmente en el área legislativa, con el diálogo y el acuerdo como instrumentos de comunicación entre unos y otros y con la flexibilidad que permita ir modificando lo que la experiencia nos obliga.

Por último, quiero simplemente señalar que nuestro grupo, salvo que hubiera alguna novedad del candi-

lizien gaitasunak eta egitekoak mugatu egin behar dira. Egitekorik betetzen ez duen eta elkartu ere egiten ez den Segurantza Batzorde hori indarberritu egin behar da. Eta erakunde guztiek -Erresumako eta Autonomiako erakundeek- babestu egin behar dute beldurrik gabe eta kemenez bi polizien iharduera.

Hirugarren burutapena. Pairaezinaren eta terrorismoaren arazoa, zuk ongi dakizunez ez da ETA eta berorren erasoetara mugatzen. Adibidez, CUIS edo LAB bezalako sindikatu batzuren bortxakeriari erantzuna eman behar zaio, izan ere herri honetako lantegi askotan onartezinezko presioa egiten bait dute, horren asmo bakarra lantegien amaiera bait da, desegitea bait da, eta ez dirudi, herri honetako enpresariak jasaten ari diren babesgabetasuna inork kontutan hartzen duenik.

Eta amaitzera noa. Ardanzak duen beste herronka bat, ezpairik gabe, Euskal Herriaren barne-egituratzea da. Egia esan, horrek esandakoak entzun ondoren badakit, horren hitzak, horren filosofia, gure ohizko iritzietatik hurbilago daudela, eta ene ustez, Konstituzio-Epaitegira jotzeko asmoa adierazi duenean poztu egin gara, izan ere herri hau bereoneratzeko bide egokia izan bait daiteke. Zein dira oraindik nolabaiteko ezadostasunen bat edo beste mantentzen duguneko puntuak?

**LEHENDAKARI** jaunak: Laburtu, Mayor Oreja jauna.

**MAYOR OREJA** jaunak: Bai, Lehendakari jauna.

Lehenik, ez gatoz bat Kondaira-Lurraldeen Legeari eman dion balioarekin. Ez dugu uste ulertze-modu on edo txarraren arazoa denik. Kondaira-Lurraldeen Legea bera da txarra. Bigarren, ez gaude ados arriskukidetasunaz asmatutako antolapidearekin, eta ez noa, bere garaian esan bait genuen, kupo finkoaren kontzeptua zergatik hutsaldu den azpimarratzera. Guk gogapen hau barreiatu nahi genuke Legebiltzar honetan: gu, Euskal Herria barne-egituratzean, araupekotasun gotorraz edo atxikiduraz, edo erakunde batzuk besteekiko behar duten nagusitasunaz, artaren eta egitamuketaren beharraz, edo antzeko irizpideez baliatzeak, ez dirudi Espainiako lurraldearen barruan gure Euskal Herriaren alde aldarrikatu ohi dugun berezitasun horri laguntza handiegirik eskainiko dioenik. Adibidez, dirubilketan arriskukidetasuna ipini behar dela badiogu, nahiko gaizki defendatuko dugu gure kupo sistema Eusko Jaurlaritzatik eta kondaira-lurraldeetatik datozkigun erabideei erantzun batzuk emanez eta Madriletik eta Euskal Herritik datozkigunei beste bat emanez. Eskakizun horiek defendatzeko garaian nolabaiteko koherentzia behar da.

Azken batean, gai horri buruzko erabidean, gehienez ere puntu batzutan gatoz bat zurearekin. Diodan berriz ere, herri deserdiratu baten alde gaituzue, Gipuzkoak, Bizkaiak eta Arabak beren nortasuna mantendu egin behar dute, lege mailan bereziki bateango erakunde sendoekin, ordea, batzuren eta besteren arteko komunikazio bidetzat elkarrizketa eta akordioa erabiliz, eta azturak erakusten digunaren arabera moldatzeko behar den malgutasunez.

Azkenik, hauxe bakarrik azaldu nahi dut, gure taldeak, lehendakarigaiak nolabaiteko berriren bat es-

dato, votará en blanco, aunque el voto en blanco de la Coalición Popular del País Vasco quiero que se interprete como un voto de esperanza más que como un voto destructivo y negativo. Y creo que he señalado suficientes coincidencias como para que, pese a que el señor Aguirre hace gestos ostensibles, nosotros digamos que todavía insistimos en las coincidencias. Gracias.

El Sr. **PRESIDENTE**: Tiene la palabra el representante de Socialistas Vascos. Señor Benegas.

El Sr. **BENEGAS HADDAD**: Señor Presidente, señoras y señores diputados, señor candidato a Lehendakari, debo comenzar mi intervención, a diferencia de los oradores que me han antecedido en el uso de la palabra, manifestando en nombre del Grupo de Socialistas Vascos que nuestra valoración general del discurso del señor candidato es positiva. Porque desde nuestro punto de vista ha hecho un discurso con el que es difícil estar en desacuerdo en sus líneas generales y en sus planteamientos de principios, y porque cada tema ha sido abordado por el candidato desde el sentido común, desde la moderación en la expresión de sus ideas y desde la esperanza de que podemos iniciar una nueva etapa en el País Vasco.

Resaltaría en primer lugar algo que el candidato ha reiterado a lo largo de toda su intervención como el eje fundamental de su discurso, como el mensaje fundamental que yo creo quería transmitir a esta Cámara, y que desde mi punto de vista reside en que ha expresado con claridad su voluntad de gobernar desde el diálogo, su voluntad de gobernar desde la negociación y el acuerdo para resolver los problemas de la sociedad vasca. Ha expresado reiteradamente su voluntad de crear un clima de diálogo y de negociación entre nosotros, partiendo del reconocimiento de que las verdades y las culpas están repartidas, y de que es preciso recuperar, como él ha dicho en su intervención, el espíritu que imperaba en el inicio del proceso democrático.

Comparto también la voluntad de iniciar una nueva etapa en el País Vasco. Lo dijimos los socialistas después de las elecciones autonómicas, y de ello dejamos constancia, de la necesidad de esa nueva etapa, en la investidura del señor Carlos Garaikoetxea. Y es también difícil por nuestra parte no compartir objetivos como los que ha señalado el candidato, de luchar por la paz, de luchar por el autogobierno, de luchar por la prosperidad y por la libertad de nuestro pueblo.

Es digno de resaltar por su novedad que un candidato a Lehendakari reconozca y asuma que, además de futuro Presidente de la Comunidad Autónoma vasca, es también, según la Constitución, el representante ordinario del Estado en la Comunidad, y en virtud de esta representación ha manifestado el candidato que está dispuesto a cumplir todas las obligaciones y a ejercer todos los derechos que esta representación implica. No hubiera sido malo que en esta ocasión tan solemne de su investidura el candidato se hubiera comprometido ante esta Cámara a cumplir la Constitución, el Estatuto, las leyes vigentes y las sentencias de los Tribunales, como establece el capítulo primero del pacto de legislatura. Y creo que todavía está a tiempo de hacerlo, antes de que finalice este debate o bien en el momento de su toma de posesión.

Debo resaltar asimismo que sus posiciones sobre la violen cia y el terrorismo constituyen avances sustanciales, a los que me referiré más adelante, con respecto de otras posiciones que se han mantenido en esta Cámara. Ha hecho también el candidato una referencia expresa a la incidencia clara del terrorismo sobre la si-

kainiko ez baligu behintzat, boto zuria emango duela, baina Euskal Herriko Talde Popularraren boto zuria suntsitzaile eta ezkor ez baino itxaropenez betea duzue. Eta ene ustez, eta Agirre jaunak halako keinu nabarmenak egin arren, zenbait gauzatan bat gatoz, eta horretan nahi dugu akio. Eskerrik asko.

**LEHENDAKARI** jaunak: Euskal Sozialisten ordekoak du hizpidea. Benegas jauna.

**BENEGAS HADDAD** jaunak: Lehendakari jauna, diputadu jaun-andreok, lehendakarigai jauna, aurreko hizlariek ez bezala, eta Euskal Sozilistak Taldearen izenean, lehendakarigaiaren hitzaldia gure neurketa orokorraren arabera aldezkoa izan dela esanez eman behar diot hasiera ene hitzaldiari. Izan ere, gure ustez, irizpide mailan eta orokorki horrekin bat ez etortzea oso zaila den hitzaldi mota prestatu bait digu lehendakarigaiak, eta gai bakoitza zentzuz azaldu, iritziak neurriz agertu, eta Euskal Herrian aldi berri bati hasiera emateko itxaropena eskaini.

Lehendakarigaiak bere hitzaldi osoan barrena oinarritzat jo duena azpimarratuko nuke lehenik, ene ustez, Legebiltzar honi oinarrizko mezutzat eskaini nahi izan diona, argi eta garbi adierazi nahi izan duena honako hau izan da, elkarrizketan oinarrituko duela bere agintaritza, euskal gizartearen arazoak argitzeko negoziazioa eta akordioa erabiliko dituela. Gure artean elkarrizketa eta negoziazioa sortzeko borondatea behin eta berriz azaldu digu, egiak eta erruak banaturik egon ohi direla onartuz, eta, bere hitzaldian esan duen bezala, demokrazi bilakaeraren hasieran ausnartu ohi zen izpiritua bera berreskuratu beharra adieraziz.

Euskal Herrian aldi berri bati hasiera emateko asmoarekin ere bat nator. Autonomia-hauteskundeen ondoren esan genuen sozialistok, eta agerian utzi, aldi berri horren beharra, Garaikoetxea jaunaren izendapenean, hain zuzen. Eta ez da erraza guretzat lehendakarigaiak aipaturiko helburuekin bat ez etortzea, bakearen alde jokatzearekin, burujabetzaren alde borrokatzearekin, gure herriaren aberastasun eta askatasunaren alde jokatzearekin.

Lehendakarigai batek Euskal Elkarte Autonomoko hurrengo Lehendakari izateaz gainera, Konstituzioaren arabera, Komunitate honetan Erresumako agizko ordezkaria dela onartzea eta bere gain hartzea, berriak direlako azpimarratzekoa da, eta ordezkotza honen arabera lehendakarigaiak ordezkotza honi dagozkion eginkizun guztiak eta eskubide guztiak bete eta bete arazteko prest dagoela adierazi du. Izendapenaren une ospetsu hau ez zatekeen unerik okerrena lehendakarigaiak Legebiltzar honen aurrean hitz emateko, legegintzaldiko hitzarmenaren lehenengo atalak dioen bezala Konstituzioa, Estatutua, indarrean dauden lege eta epaimahaien erabakiak betetzeko prest dagoela. Eta oraindik ere, eztabaidaketa hau amaitu aurretik, edo agian, agintea hartu baino lehen garaiz dabil.

Indarkeriari eta terrorismoari buruz zioenak ere oinarrizko aurrerapena adierazten duela azpimarratuko nuke, eta Legebiltzar honetan mantendu izan diren iritzi batzurekiko azaltzen duen aldaketaz geroago hitz egingo dut. Gure lur honetan lantegi berrien sortzea eta inbertsio gebenduak uxatuaz terrorismoak egoera ekonomi-

tuación económica, al dificultar la creación de nuevas empresas y alejar nuevas inversiones privadas de nuestra tierra. Comparto también su frase de que el terrorismo es incompatible con la nueva empresa vasca que necesitamos, así como cuando ha manifestado con rotundidad, y con claridad que le agradezco, que en una democracia la legitimidad la dan los votos y no las armas ni la utilización de la violencia.

Debo destacar del discurso del candidato, porque me parece algo fundamental, que estamos ante un cambio de lenguaje, que estamos ante un cambio de talante y que se comienza a utilizar un lenguaje sobre el cual podemos avanzar en el entendimiento, desde el mantenimiento de nuestras propias señas de identidad y de nuestros proyectos políticos diferentes. Es de agradecer, por ejemplo, que a lo largo de todo el discurso del señor candidato no haya habido ningún ataque al Gobierno de la nación, tan habituales en intervenciones similares.

Es evidente que el candidato hoy no nos ha expuesto un programa de gobierno, sino unas líneas generales sobre lo que entiende va a ser su actuación política, aunque ha abordado aspectos importantes de la situación económica del país. Y yo comprendo que por las circunstancias de su nominación, por las circunstancias en que comparece ante esta Cámara, y quizá también incluso por falta de tiempo, no haya podido presentar hoy un programa de gobierno completo. Simplemente hago esta puntualización para dejar constancia de que desconocemos en estos momentos cuáles son las intenciones del candidato en muchas áreas de su acción de gobierno, por el desconocimiento de su programa de gobierno. A pesar de ello, debo decirle que la valoración global del discurso del candidato que hace nuestro grupo es positiva.

Además de los temas que ya ha mencionado, el candidato se ha referido en diferentes pasajes de su discurso al pacto de legislatura alcanzado con los socialistas vascos, aunque todavía no está firmado oficialmente. Pacto de legislatura al que los socialistas damos una importancia enorme para el futuro de este país, como también ha dicho con otras palabras el candidato a lo largo de su discurso. Pacto de legislatura al que han hecho tam bién referencia otros portavoces, dedicándole una especial atención en sus intervenciones y al que forzosamente tengo que hacer una referencia, aunque debo dejar claro que no me corresponde a mí en este momento contestar a las cuestiones que otros portavoces de otros grupos han dirigido expresamente al propio candidato sobre el pacto de legislatura que hemos suscrito.

No me corresponde a mí contestar o explicar sus dudas o sus planteamientos sobre los aspectos que se le han planteado a usted directamente, pero debo decir, porque al pacto de legislatura me voy a referir, que entiendo que ninguno de los grupos que han intervenido anteriormente ha hecho una crítica seria del texto estricto y literal del propio acuerdo. Y, en segundo lugar, quiero hacer una advertencia, en el sentido de que no es buena táctica política el tratar de descalificar un acuerdo para a continuación tratar de sumarse al mismo, al menos en los puntos que están abiertos a otros grupos parlamentarios y que hemos tenido la deferencia de dejar abiertos para que se incorporen a este posible acuerdo.

Debo decir también que éste no es un planteamiento nuevo por parte del Grupo Socialista, el de ofrecer un acuerdo, el de ofrecer un pacto de legislatura, aunque sí quizá en su propia expresión de "pacto de legislatura". Debo decir que desde hace mucho tiempo los socialistas vascos venimos reclamando la necesidad de un acuerdo de esta naturaleza o de características simi-

koarekin zerikusi zuzena duela ere aipatu du zehazki lehendakarigaiak. Beharrezkoa dugun euskal enpresa berri honekin terrorismoa bateraezina dela zioen esapide horrekin ere bat nator, eta nola ez, demokrazian bidezkotasuna armak eta bortxakeriak ez baino botoak ematen dutela irmo eta garbi adierazi duen horrekin ere; eta ene eskerrak horregatik.

Lehendakarigaiaren hitzaldian azpimarratu beharreko,oinarrizkoa bait deritzot, hizkuntzaren aldaketaren baten aurrean gaudela, jarrera-aldaketa nabari dela eta bakoitzak bere nortasuna mantendu arren eta politika-egitamu ezberdinak izanik ere, elkarren ulermenean aurrera jo dezakegun hizkuntza mota erabiltzen hasi dela. Eskertzekoa da, adibidez, lehendakarigaiaren hitzaldi osoan barrena, nazioko Gobernuari, antzeko hitzaldietan hain ohizkoak ziren erasoak ez egitea.

Begibistan dago gaur lehendakarigaiak ez digula jaurtze-egitamurik aurkeztu, horren ordez, eta tartean gure herri honen egoera ekonomikoaren zertzelada nagusiak azaldu badizu ere, bere iharduera politikoa nondik norakoa izango den adierazteko lerro nagusi batzu agertu dizkigu. Horren izendapena nola gertatu den kontutan hartzen badugu, Legebiltzar honetara agertzeko egoera eta, agian denbora falta ere, buruan badiugu, jaurtze-egitamu osoa gaur ez azaldu ahal izatea ulertzekoa da. Xehetasun hau honegatik egin dugu, une honetan aginte iharduerako hainbat alorretan lehendakarigaiaren asmoen berri ez dugulako, eta horren jaurtze-egitamua ezagutzen ez dugulako. Dena den, gure taldeak lehendakarigaiaren hitzaldiari buruz egin duen balio orokorra onezkoa dela esan behar dizut.

Aipatu ditudan gaiez gainera, lehendakarigaiak, bere hitzaldiko hainbat pasartetan euskal sozialistekin lortutako -oraindik ofizialki izenpeturik ez badago ere- legegintza-aldiko ituneaz jardun du. Eta sozialistok herri honen geroari begira izugarrizko garrantzia eskaintzen diogu legegintza-aldiko itune honi, eta lehendakarigaiak, bere hitzaldian zehar, beste hitzekin bada ere, beste hainbeste eskaini dio. Beste taldeburuek ere aipatu dute legegintza-aldiko itunea, eta beraien hitzaldietan arreta berezia eskaini diote, bada nik, eta sinatu dugun legegintza-aldiko ituneaz lehendakarigaiari berari beste taldeburuek zuzendu dizkioten galderei nik erantzutea ez dagokidala argi utzi ondoren, ezinbestean aipamen bat egin nahi nuke.

Ez dagokit neri, zuri zuzendu dizkizuten zalantzak erantzun edo argitzea, baina esan egin behar dut, legegintza-aldiko ituneaz ihardungo bait dut, nire aurretik jardundako talde bakar batek ere ez duela hitzarmenaren beraren testu zehatz eta hitzez hitzezkoaren benetako azterketarik egin. Eta, bigarren, oharpen bat egin nahi dut, ez baita joko politiko ona, lehenik akordioa gutxietsi eta ondoren hor sartu nahi izatea, Legebiltzarreko beste taldeek, horientzat zabalik dauden eta, adeitasun osoz, zabalik utzi ditugun puntu haietan behintzat, agiango akordio honetan parte har dezaten.

Hau ere esan behar dut, Talde Sozialistaren aldetik, akordio bat eskaintzea, legegintza-aldiko hitzarmen bat egitea, ez dela jokabide berria, agian "legegintza-aldiko itunea" izenez adieraztea berria bada ere. Euskal Herriko arazoak bideratzeko honelako edo antzeko hitzarmen baten beharra aspaldidanik ari gaituzue aldarrikatzen Euskal Sozialistok. Akordio hirukoitz baten

lares para encauzar los problemas del País Vasco. La primera vez que yo hice referencia a la necesidad de un triple acuerdo fue en el 1978, en una conferencia en el club "Siglo XXI". Desde entonces, la necesidad de ese triple acuerdo ha estado presente siempre en las resoluciones de los Congresos del Partido Socialista. Con reiteración hemos hablado de la necesidad de un triple acuerdo sobre la violencia y el terrorismo, sobre el desarrollo estatutario y la construcción de la Comunidad Autónoma vasca, sobre la crisis económica y la lucha contra el paro. Esta oferta la reiteramos a lo largo de la legislatura pasada infructuosamente, y la volvimos a efectuar después de las últimas elecciones autonómicas, en la investidura del señor Garaikoetxea. Y lo hicimos en aquel momento más convencidos que nunca de su necesidad, al no contar el Partido Nacionalista Vasco con mayoría suficiente para poder gobernar este país, y por entender que la propia composición de este Parlamento obligaba al pacto, obligaba al acuerdo, obligaba a la negociación a cualquier persona que tuviera la responsabilidad de gobernar el País Vasco.

Para demostrar esta coherencia y para evitar cualquier conjetura malintencionada, permítaseme recordar algo de lo que manifestó el Grupo Socialista en la investidura del señor Garaikoetxea el 11 de abril de 1984. Decíamos entonces que los socialistas vascos hicimos público, después de las elecciones del 26 de marzo, que "no era nuestra intención dificultar u obstaculizar la designación a Lehendakari del candidato del partido que más votos obtuvo en las urnas; esta actitud la hicimos entonces y la mantenemos ahora fundamentalmente por la difícil situación por la que atraviesa nuestro país y nuestro pueblo y como un gesto de buena voluntad de los socialistas, que desde hace mucho tiempo deseamos y hemos venido exigiendo que impere el diálogo, la negociación y los acuerdos para resolver los problemas del País Vasco".

Añadíamos que los dirigentes políticos "debemos saber distinguir las etapas, debemos saber comenzar etapas nuevas, debemos tener capacidad incluso de revisar el pasado, sobre todo cuando en el pasado no hemos sido capaces de resolver los proble mas que afectan con dramatismo a la vida de un pueblo o de una sociedad". Y añadíamos que la oferta que se recogía en el final del discurso del señor Garaikoetxea nos parecía positiva, y que su discurso ofrecía la posibilidad de abrir un periodo de diálogo, un periodo de negociación con el Gobierno de la nación y con otras fuerzas políticas de esta Cámara para llegar a tres grandes acuerdos o, por lo menos, para iniciar el diálogo sobre tres grandes problemas, los tres grandes problemas que tenía planteado nuestro pueblo: la violencia, el desarrollo estatutario y la crisis industrial.

Y terminábamos nuestro discurso en el debate de investidura del señor Garaikoetxea manifestando que la empresa no iba a ser fácil, no iba a estar exenta de dificultades, pero que creíamos que valía la pena intentarlo, porque si se producían esos acuerdos el beneficiario iba a ser el pueblo vasco. Y anunciábamos un voto en blanco, que también será "un voto de expectativa, un voto de diálogo, de negociación, un voto de esperanza, en el sentido de abrir una nueva etapa en este país en la que tratemos de resolver los problemas de nuestro pueblo, buscando el acuerdo y no el enfrentamiento".

Esto fue lo que dijimos en la investidura del señor Garaikoetxea, éste fue el espíritu de colaboración con el que los socialistas afrontamos la investidura del señor Garaikoetxea en su día, y también fue el mismo espíritu con el que, después de duros enfrentamientos que mantuvimos con motivo fundamentalmente del terrorismo, le

beharraz 1978an hitz egin nuen lehenengo aldiz, hain zuzen "Siglo XXI" deritzon klubean eskainitako hitzaldi batean. Geroztik, itune hirukoitz horren beharraz zipristindurik egon dira Alderdi Sozialistaren Biltzarretako erabakiak. Behin eta berriz ihardun dugu indarkeria eta terrorismoaz, Estatutuaren garapena eta Euskal Elkarte Autonomoaren eraikuntzaz, larrialdi ekonomikoaren eta langabeziaren aurkako borrokaz akordio hirukoitz baten beharrean geundela esanaz. Eskaintza hau berritu egin nuen aurreko legegintza-aldian, baina alferrik, eta azken Autonomi hauteskudeen ondoren, Garaikoetxea jaunaren izendapenean berriz ahalegindu ginen. Eta une hartan inoiz baino jabetuagoak geunden horren beharraz, herri honen eraentzarako Euzko Alderdi Jeltzaleak ez bait zuen orduan behar bezalako gehiengorik, eta Legebiltzar honen osaketak berak ere hitzarmenera, akordiora, Euskal Herria jaurtzeko erantzukizuna zuen edonorekin negoziatzera bultza ohi gintuela uste bait genuen.

Koherentzia hau indartu ustez eta uste okerrak baztertu asmoz, utzi iezadazue 1984eko apirilaren 11an Garaikoetxea jaunaren izendapenean Talde Sozialistak adierazi zuena gogorarazten. Hauxe genioen orduan, martxoaren 26ko hauteskudeen ondoren, Euskal Sozialistok agirian jarri genuela gure asmoetatik urrun zegoela hautestontzietan botorik gehienak jasotako alderdiko lehendakarigaiaren izendapenari inolako oztopo edo trabarik jartzea; gure herri hau kinka larrian aurkitzen delako, eta sozialiston borondate onaren adierazpen gisa, orduko jarrerak berak bizirik dirau gaur egun ere, aspaldidanik elkarrizketa, negoziazioa, eta akordioak aldarrikatu eta galdatu bait ditugu Euskal Herriaren arazoak gainditzeko.

Beste hau ere gaineratu genuen: "buruzagi politikook aldiak bereizten jakin behar dugu, aldi berriei ekiten jakin behar dugu, iragana arakatzeko ausardia ere behar dugu, gizarte baten edo herri baten bizitzan eragin handia duten arazoei irtenbide bat emateko gauza izan ez garenean bereziki." Eta gehi dezagun Garaikoetxea jaunaren hitzaldiaren bukaeran azaldu zen eskaintzari baliagarri generitzola, eta haren hitzaldiak elkarrizketa-aldi bati, Nazioko Gobernuarekin eta Legebiltzar honetako beste indar politikoekin negoziazio-aldiari ateak irekitzen zizkiola, hiru akordio handitara iristeko, hain zuzen, edo gutxienez, hiru arazo handiri buruz, gure herriak zituen hiru arazo handiei buruz: indarkeriari, Estatutuaren garapenari eta industriaren larrialdiari buruz elkarrizketan hasteko.

sumako Jaurlaritzako goi-mailako ordezkari batek, une hartan Gasteizko aldian-aldiango auzokoa, hitzarmen hau Carlos Garaikoetxearekin ezin izango zatekeela izenpetu esan zuen. Nik ez dakit hau Ardanza jaunaren ala Garaikoetxea jaunaren goraipamena zen. Nolanahi ere, adierazpen hori gutxienez lekuz-kanpokoa izan zela ez dudarik egiten.

Baina, nor behartzen duen eta nor ez bazter utziz, Euzko Alderdi Jeltzalea behartzen duen, legebiltzar-taldea behartzen duen, edo agian, galdetu ez bada ere, baita Erresumako Jaurlaritza eta Alderdi Sozialista behartzen dituen -hau ere ez da galdetu-, Ardanza jaunak berak, egoki erizten badio, jarraian ezpairik gabe nik baino aginte handiagoz aztertuko dituen auzi horietatik kanpo, argi eta garbi azaldu nahi dudana zera da; Euzko Abertzaleak Legebiltzar-Taldea hitzarmen honen xedeari leial izango gatzaizkiola. Gernikako Estatutuaren hitzarmen istorikoaren, hitzemate istorikoaren xede bera duen hitzarmen honen xedeari leial. Hau da, Euskadiren burujabetzan aurrera ekiteari leial, herri honen autonomi garapena burutzeari leial, langabezia eta larrialdiaren aurka elkarlanean borrokatzeari leial. Hau da, une jakin batetan gure herriaren oraintsuko istorian Gernikako Estatutuaren ezarketa finkatu zuten eta gaur egun, ezpairik gabe, modu itxaropentsu eta goreskarrian, akordio berria suposatzen duten auzi horiei leial.

Baina abertzaleon ikuspegitik ere galdera asko egin beharko genioke geure buruari, gu, Abertzale Taldea, eta noski, Jaurlaritza Abertzalea, hitzarmen hau leialki betetzeko prest bait gaude. Galderak; halere, argiegiak dira. Zer suposatzen du Talde Sozialistarentzat edo Erresumako Jaurlaritza Sozialistarentzat? Helburua al da edota zein neurritan aldatuko da hainbat eta hainbat oinarri-lege gauzatu dituen konstituzioaren aurkako LOAPAren xedea? Aurrera egingo al du Euskadiko gehiengoa abertzalea, eta ez sozialista, edo zehatzago, ez "psoeista", denaren onarpen demokratikoaren bidean? Zein izango da test egokia? Alderdi Sozialistarentzat benetako xedea zein den zehaztuko duten testak, Gizarte-Segurantza eta Mailegupide ofiziala bezalako transferentzia garrantzitsu eta zailak izango dira. Egun gutxi barru, Senadu espainiarrean bertan, Toki-Jaurpideen Oinarri-legeak, legegintza-bidean, legegintzaldi bat beteko du. Ikus dezagun akordio honek zein neurritan eragiten dien bi alñderdi haundiei, zer neurritan ari den egitura berri bat gauzatzen, ikus dezagun zein neurritan den hau benetako aldaketa.

Euzko Alderdi Jeltzalearen, Jaurlaritzaren eta legebiltzar-taldearen nahia, argi et garbi diot behin eta berriz, ezpairik gabe, itxaropen berriak sortzen dituen hitzarmen honen xede hau benetan betetzea da. Lehendakarigaiaren hitzak sendetsiz, nahi dugun hitzarmena, Legebiltzar honetako beste aukerei irekitako hitzarmena, baina, norbaitek hitzarmenarekiko edo horren edukiarekiko edo hotrren xedearekiko izan lezakeen zalantza oroz gain, guk, Euzko Abertzaleok, badugu, eta horrela egiten dugu atseginez, hitzarmen honetan sinistu beharra, badugu hitzarmen honetan ustea eduki beharra, eta noski, hau da une honetako gure borondatea.

Hitzarmen honetan auzi asko aipatzen da. Hauetako bat, ezpairik gabe garrantzitsua, elkarbizitza demokratikoaren, terrorismoaren eta indarkeriaren aipamena da. Garaikoetxea lehendakariak behin eta berriz esan

desde este mismo estrado la necesidad imperiosa de recuperar los valores éticos de la convivencia, a todos los niveles y en todas las esferas de la vida. Esto sigue siendo hoy absolutamente válido. Está claro que toda violencia y todo terrorismo siguen siendo hoy el cáncer de Euskadi. Garaikoetxea y Ardanza lo han reiterado hasta la saciedad. Al parecer no ha sido suficiente, no ha sido suficiente porque sigue siendo necesario volver a proclamarlo.

Porque hoy y en este momento yo me creo legitimado para atribuirme la representación de toda esta Cámara, y probablemente de todos los ciudadanos de bien de este pueblo, para clamar de nuevo condenando el último asesinato, del señor Sánchez en Portugalete, para clamar por la libertad del señor Urteaga. Yo creo que esta Cámara tiene el derecho a exigir -a exigir, porque el derecho a la vida y a la libertad no se ruega ni se suplica-, a exigir que no haya más asesinatos, que no haya más atentados a la vida; a exigir la libertad inmediata del señor Urteaga, porque se está atentando a nuestras vidas y a nuestra libertad, porque mientras se atente a la vida de cualquier ciudadano de este país o de cualquier parte del mundo, mientras se coarte la libertad de cualquiera, se está atentando a la vida y a la libertad de todos y cada uno de nosotros. Reclamamos y exigimos a ETA el cese de la violencia. Reclamamos y exigimos a ETA la libertad de Urteaga, porque reclamamos nuestra vida y nuestra libertad a la que tenemos derecho.

Pero probablemente este debate, al ciudadano que a través de la radio o de la televisión lo pueda estar escuchando, puede producirle una sensación un tanto deshumanizada. Yo preguntaría a ese ciudadano que en este momento quizá nos esté escuchando, si no se ha aburrido ya demasiado, qué le dice este debate parlamentario hoy aquí, qué expectativas o qué esperanzas nuevas han llegado a su vida. Yo preguntaría a ese parado, que vive en sí mismo y en su familia la angustia de su inutilidad y la ausencia de todo, yo preguntaría a esa persona que todavía no tiene una vivienda digna, yo preguntaría a esa persona que sufre enfermedad o minusvalía, a ese joven desesperado en el recurso de la droga, a ese anciano en su soledad, a ese analfabeto o degradado culturalmente, a esa persona que sale de la cárcel sin otro destino que volver a ella, a esa mujer a la que todavía esta sociedad en gran parte discrimina o margina, yo preguntaría a tantos y tantos ciudadanos de Euskadi qué les ha dicho este debate, qué les ha dicho esta sesión parlamentaria.

Probablemente es importante recordar que este Gobierno va a ser, como lo ha sido el anterior, porque tiene que seguir siéndolo, necesariamente beligerante contra la injusticia social en todas sus manifestaciones, contra la injusticia social que supone la violencia y el terrorismo, contra la injusticia social que supone el paro, contra la injusticia social que supone la falta de cultura. Porque esos son los principales y los graves obstáculos para que este pueblo alcance de verdad la liberación; la liberación de la violencia, la liberación del paro, la liberación de la incultura. Es necesario que este Gobierno sea un Gobierno decididamente gestor de servicios sociales, de servicios sociales que son instrumentos eficaces de realización personal y colectiva, instrumentos de redistribución de renta, clave de arco del progreso social. Es un deber ético del Gobierno dar una respuesta política a cada ciudadano: respuesta al derecho al trabajo, al derecho a la salud, al derecho a la educación, al derecho a la cultura, al derecho al medio ambiente. Es preciso, en esta sociedad en gran parte deshumanizada e insolidaria, tener siempre presente el rostro humano de esa crisis que nos ahoga, el rostro de esa persona que vive

digu areto honetatik bertatik, elkarbizitzaren balore etikoak berreskuratu behar larria, bizitzaren eremu eta maila guztietan. Honek ez du egun baliorik galdu. Argi dago indarkeria eta terrorismo orok Euskadiren minbizi izaten darraiela. Garaikoetxeak eta Ardanzak aspertzeraino errepikatu dute. Dirudienez ez da nahikoa izan, beharrezkoa bait da berriro ere aldarrikatzea.

Gaur eta une honetan, Legebiltzar oso honen eta seguraski, herri honetako hiritar zintzo guztien ordezkaritza eskuratzeko zilegituta nagoela uste bait dut, Portugaleten Sánchez jaunaren azken hilketa gaitsetziz berriro oihu egiteko, Urteaga jaunaren askapenerako oihu egiteko. Nere ustez, Legebiltzar honek badu isituki eskatzeko eskubidea -isituki eskatu, askatasunerako eta bizitzeko eskubidea ez bait da ez erregutzen ez eskatzen-, bizitzaren aurkako eraso gehiago, hilketa gehiago gerta ez dadin eta Urteaga jaunaren berehalako askapena isituki eskatzeko eskubidea, gure askatasuna eta bizitza erasotzen ari bait dira, herri honetako edota munduko edonongo edozein hiritarren bizitza erasotzen den bitartean, edonoren askatasuna murrizten den bitartean, gutariko bakoitzaren eta guztion askatasuna eta bizitza erasotzen ari bait dira. ETAri indarkeria utz dezan isituki eskatzen eta jazartzen diogu. ETAri Urteagaren askapena isituki eskatzen eta jazartzen diogu, gure eskubide diren bizitza eta askatasuna jazartzen bait ditugu.

Baina seguraski eztabaida honek, irratiz nahiz telebistaz entzuten dagokeen hiritarrari, nolabaiteko somakuntza ezgizakorra sor diezaioke. Nik, une honetan, beharbada gu entzuten ari den hiritar horri, dagoeneko gehiegi aspertu ez bada, hauxe galdetuko nioke; ea zer esaten dion Legebiltzarreko eztabaidaketa honek gaur hemen, ea zer ustantza edo zer itxaropen berri iritsi diren bere bizitzara. Nik, ororen eza eta bere ezerezkeriaren atsekabea beregan eta bere familiarengan bizi duen langabetu horri galdetuko nioke, oraindik etxebizitza duinik ez duen pertsona horri galdetuko nioke, elbarri edo gaisorik dagoen pertsona horri, droga bideán itxarogabetutako gazte horri, bere bakardadean murgildutako agure horri, kulturalki desmailakatutako edo alfabetatugabeko horri, gartzelatik atera ondoren hara itzultzea beste irtenbiderik ez duen pertsona horri, gizarte honek oraindik ere maila haundi batetan bereizten edo baztertzen duen emakume horri, Euskadiko hainbat eta hainbat hiritarri, eztabaidaketa honek zer esan dion, legebiltzar-bilkura honek zer esan dion galdetuko nioke.

Beharbada garrantzitsua izango da zera gogoraraztea; Jaurlaritza hau, aurrekoak egin zuen bezalaxe, hala izan behar duelako, gizarte-bidegabekeriaren agerbide guztien aurka bereziki gogorra izango dela, indarkeriak eta terrorismoak suposatzen duten gizartebidegabekeriaren aurka, kulturarik ezak eta langabeziak suposatzen duten gizarte-bidegabekeriaren aurka. Horiek bait dira herri honek benetan askapena lor dezan oztopo nagusi eta larriak: indarkeriarekiko askapena, langabeziarekiko askapena, kultura ezarekiko askapena. Jaurlaritza hau gizarte-zerbitzuen antolagile erabakikorra izan dadin beharrezkoa da, norbera eta taldea egiteratzeko eta gizarte-aurrerapenaren giltzarri den errenta birbanaketarako lanabes erangikorrak diren gizarte-zerbitzuen antolagile. Jaurlaritzaren eginbehar etikoa da hiritar bakoitzari erantzun politikoa ematea: lanerako eskubideari erantzutea, osasunerako eskubideari, heziketarako eskubideari, kulturarako eskubideari, ingurugirorako eskubideari erantzutea. Gizatasun eta elkartasunik eza nagusi den gizarte honetan, itotzen gaituen larrialdi horren alde gizakorra beti begibistan izatea beharrezkoa da; gure ondoan bizi den izen eta deiturekiko

junto a nosotros con nombres y apellidos, que tiene el derecho a la felicidad, que deriva de su propia dignidad humana y cuya satisfacción es lo que da auténtico sentido a la acción de gobierno, lo que legitima el gasto público y toda la acción política, porque realmente es la auténtica legitimación social sin la cual la legitimación democrática carecería de razón de ser. Estas palabras que yo pronunciaba literalmente en el Pleno del día 11 de abril, creo que en nombre de mi grupo parlamentario siguen siendo absolutamente válidas ahora, cuando comenzamos una nueva etapa.

Mis palabras ya no tiene sentido que sean prolongadas. Voy a terminar esta breve intervención, y la voy a terminar de la única manera en que el portavoz nacionalista considera que debe hacerlo: dedicando, desde lo más profundo de mi corazón, un sentido homenaje a Carlos Garaikoetxea y a su Gobierno. Es un honor ser su compañero de partido, pero además ha sido y es y será un privilegio ser su amigo. Hoy es un día para proclamar la entrega generosa de nuestro Lehendakari Garaikoetxea al servicio de nuestro pueblo, de proclamar su inigualable talla de político, su carisma de hombre excepcional. Fiel a una ética de principios por encima de la mal llamada ética de la eficacia, testimonio con su vida personal, familiar y pública de honestidad y de afecto hacia todos, la reciente historia de Euskadi tiene en su portada para siempre al Lehendakari Carlos Garaikoetxea. Pero, afortunadamente para este pueblo, Carlos Garaikoetxea no es sólo historia; es, sobre todo y principalmente, futuro. Muchas gracias.

El Sr. **PRESIDENTE**: Tiene la palabra el candidato a Lehendakari.

El Sr. **ARDANZA GARRO**: Señor Presidente, señoras y señores parlamentarios, efectivamente mi discurso no ha sido un discurso programático en el estricto sentido que se le suele dar a ese concepto de discurso programático, y creo que era obvio que yo en este momento no pretendiera hacer un discurso programático. Creo que eso lo vamos a poder hacer más tarde. Pero, sin embargo, yo sí creo que en mi discurso he abordado o al menos he pretendido abordar los problemas fundamentales que yo entiendo que tiene este país. Y no sólo he pretendido abordar los problemas fundamentales que tiene este país, sino que además he querido también marcar las líneas básicas para hacer frente a estos problemas fundamentales que tiene este país, y creo que en este sentido sí se puede considerar mi discurso, de alguna forma, aunque tal vez en grandes líneas, un discurso programático.

Yo he pretendido resumir en mi discurso lo que yo entiendo los grandes problemas del país, que nos preocupan a todos en esta Cámara y que creo que además preocupan en general a los ciudadanos de Euskadi, y los voy a citar brevemente. Efectivamente, por una parte tenemos el gran reto de la institucionalización o de la vertebración del país. El otro gran problema que tenemos en este país es el de la violencia, terrorismo y convivencia democrática. El tercer problema, el desarrollo estatutario. Y, el cuarto problema, el de la crisis económica y su consecuencia fundamental, que es el paro.

Por lo que respecta a la vertebración del país, yo he hecho un planteamiento en el cual he manifestado la opinión que a mí me merece este problema. Creo que he dicho que hay que respetar la soberanía o la capacidad o la razón de ser de cada una de las instituciones que conforman este país: el Gobierno por una parte, las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos. Estos son los tres niveles institucionales que tenemos en este país, y

pertsona horren alde gizakorra, zoriontsu izateko eskubidea duen, bere gizaki-duintasunari darion eta jaurtzeekintzari benetako zentzua ematen diona, herri-xahupena eta ekintza politiko guztia legezko egiten duena, benetan egiazko gizarte-legeztapena bait da, zeinarik gabe legeztapen demokratikoak ez bait luke izate-ziorik izango. Nik Apirilaren 11ko osoko bilkuran hitzez hitz esandakoek, nere legebiltzar-taldearen izenean, orain, aldi berria hasten dugunean, guztiz baliodunak izaten jarraitzen dutela uste dut.

Nere hitzetan luzatzeak ez du zentzurik. Ihardunaldi labur hau bukatzera noa, eta Abertzaleen taldeburuak egin beharra duela deritzon era bakarrean bukatu ere: nire bihotzaren barren-barrenetik Carlos Garaikoetxeari eta horren Jaurlaritzari goratzarre unkigarria eskeiniz. Horren alderdikide izatea ohore da, baina, horrezaz gain, horren laguna izatea bereiztasun bat izan da, bada eta izango da. Gaur, Garaikoetxea Lehendakariak gure herriaren zerbitzuan egindako eskaintza eskuzabala aldarrikatzeko eguna da, horren neurri politiko paregabea eta ezohizko gizatasuna aldarrikatzeko eguna. Oker deitutako eraginkortasunaren etikaz gain, printzipioen etikari zintzo; bere bizitzaz, senitarteko eta jendarteko bizitzaz, denekiko sentipen eta prestutasunaren adierazle, Euskadiren oraintsuko istoriak betiko izango du bere aurrekaldean Carlos Garaikoetxea Lehendakaria. Baina, herri honentzat, zorionez, Carlos Garaikoetxea ez da istoria soilik; etorkizuna da batez ere eta bereziki. Eskerrik asko.

**LEHENDAKARI** jaunak: Lehendakarigaia da hizpidearen jabe.

**ARDANZA GARRO** jaunak: Lehendakari jauna, legebiltzarkide jaun-andereok, benetan nire hitzaldia ez da hitzaldi programatikoa izan, hitzaldi programatiko eduki horri ematen zaion zentzu hertsian, eta nire ustez argi zegoen nik une honetan ez nuela hitzaldi programatikoa egin nahi. Hori aurrerago egin dezakegulakoan nago. Baina, halere, nere ustez nere hitzaldian ukitu ditut edo ukitzen saiatu naiz, herri honek nire iritziz dituen funtsezko arazoak. Eta ez naiz soilik herri honek dituen arazo nagusiak ukitzen saiatu, herri honek dituen arazo nagusi hauei aurre egiteko oinarrizko erabilpideak ere finkatu nahi izan ditut, eta zentzu honetan har daiteke, nik uste, ene hitzaldia, nahiz eta orohar, nolabait hitzaldi programatikotzat hartu.

Nik nere hitzaldian, ene iritziko, herriaren arazo haundiak laburbildu nahi izan ditut, Legebiltzar honetako guztiak eta nire ustez, orohar, Euskadiko hiritarrak kezkatzen dituzten arazoak, eta laburki aipatuko ditut. Izan ere, alde batetik herriaren egituraketaren eta erakuntzaren herronka izugarria daukagu. Beste arazo nagusia elkarbizitza demokratikoarena, terrorismoarena eta indarkeriarena da. Hirugarrena, EstatutUaren egiterapenarena. Laugarrena, ekonomi larrialdiarena eta horren ondorio nagusiarena, hau da, langabeziarena.

Herriaren egituraketari dagokionean nik azalpen bat egin dut eta hor arazo honi buruzko iritzia adierazi dut. Herri hau osotzen duten erakunde horietako bakoitzaren izate-zioak edo ahalmena edo burujabetasuna gorde behar direla uste dut: Jaurlaritza alde batetik, Foru Aldundiak eta Udalak. Hauek dira herri honetan ditugun hiru erakunde-mailak, eta hauetako bakoitzak, bere aginteen arabera, gizarteak dituen arazoei aurre

cada uno de ellos con su específica personalidad y con su específica capacidad para, en la medida de sus competencias, hacer frente a los problemas que tiene la sociedad.

Y para ello he estado planteando el principio de división de poderes y el principio de subsidiariedad. Yo entiendo que la Administración pública, en la medida de lo posible, debe ir acercándose al ciudadano cuanto más mejor, porque entiendo que de esta forma también el ciudadano puede sentirse más comprometido con sus propias instituciones. Pero también he dicho que desde el punto de vista de los grandes problemas del país, de la dirección general del país, de la fijación de los criterios globales de la gobernación del país, esto debe hacerse a partir de este Parlamento y del Gobierno vasco.

Pero he dicho más. He dicho que en definitiva éste es un problema grave, que evidentemente todos somos conscientes de que ha traído una serie de consecuencias, y he dejado el tema abierto, puesto que la ley de Territorios Históricos está en este momento pendiente de un Tribunal Constitucional. Y como también a su vez, dentro del pacto de legislatura con el Partido Socialista, se está previendo en el punto quinto que aquellas leyes que vayan a normar la institucionalización del país deban ser consensuadas, y además en el capítulo sexto del mismo pacto con el Partido Socialista también se está haciendo una apelación a este mismo problema, he querido dejar claramente abierto este tema, de forma que en el momento que proceda tengamos que recon siderar entre todos cuál va a ser definitivamente la formalización o la formulación de la vertebración de este país.

En el tema que hace referencia o en el punto referente a la violencia, terrorismo y convivencia democrática, creo que en este punto he sido rotundo. Yo no sé si merece la pena que me vuelva a extender en lo que en mi discurso creo que ha quedado claramente planteado. Yo entiendo que en una sociedad, que en un Estado de derecho, que en una democracia, y más en el caso nuestro, en el que en un período relativamente corto de estos seis últimos años hemos tenido prácticamente seis o siete consultas populares, creo que ha quedado claramente manifestada la voluntad de nuestro pueblo de por qué vías quiere apostar. Por tanto, entiendo que, si la voluntad popular, que es en definitiva quien legitima a los interlocutores, ha establecido y ha marcado, con las relativas proporciones de los distintos partidos políticos, a qué se quiere apostar en esta sociedad, creo que son únicamente y solamente estos representantes legitimados por el voto popular quienes tienen que abordar este problema para tratar de ver cuál puede ser la mejor solución.

Por tanto, he sido claro diciendo también que no se pueden plantear negociaciones desde las exigencias o desde los condicionamientos que los distintos grupos armados puedan establecer, porque esto en definitiva sería vulnerar la democracia. Pero unido a esto he querido también dejar muy claro el tema del desarrollo estatutario, y lo he querido dejar muy claro porque entiendo que en Euskadi no se resuelven todos los problemas sólo con un planteamiento democrático o con la existencia de una democracia.

Este país desde hace mucho tiempo está reivindicando dos cosas claramente: reivindica por una parte las libertades individuales, que son en definitiva fruto de una democracia, pero, con tanta fuerza o más, este país viene también reivindicando el desarrollo de su propia conciencia nacional. Y, por tanto, he querido ser también claro y contundente en el tema del desarrollo estatutario, porque, si no, entiendo que si en esta segunda

egiteko berarizko gaitasuna eta berarizko nortasuna duela.

Eta hartako aritu naiz ahalmen banaketa-irizpidea eta ordezkotasun-irizpidea azaltzen. Nire ustez, herri-arduralaritzak, ahal duen neurrian, hiritarrarengana hurbiltzen joan behar du, zenbat eta gehiago hobe, honela hiritarrak ere bere erakundeekiko lotura haundiagotu egingo bait du. Baina guzti hau, herriaren arazo nagusien ikuspuntutik, herriaren artezkaritza nagusiaren eta herria jaurtzearen irizpide orokorren finkatzearen ikuspuntutik, Legebiltzar honek eta Eusko Jaurlaritzak egin beharrekoa dela ere esan dut.

Baina besterik ere esan dut. Hau azken batean arazo larria dela, jakina, zenbait ondorio ekarri dituela jabetu garela, eta, Lurralde-istorikoen Legea Konstituzio-auzitegiaren zain dagoenez, gaia irekia utzi dut, beraz eta era berean, Alderdi Sozialistarekin dugun Legegintza-aldi hitzarmenaren boskarren puntuan, herriaren erakuntza araupetuko duten legeak irizkidetuak izan behar dutela ohartematen denez, eta gainera Alderdi Sozialistarekin dugun hitzarmen beraren seigarren atalean ere, arazo hau gogorarazi denez, gaia erabat irekirik utzi nahi izan dut, bidezko den unean, denon artean, herriaren egituraketaren zehaztapena edo lege-arautzea zein izango den birrausnartu beharra izan dezagun.

Indarkeriari, izu-ekintzari eta elkarbizitza demokratikoari dagokion gaian edo puntuan, erabatekoa izan naizelakoan nago. Nik ez dakit nire hitzaldian argi eta garbi azalduta geratu denari berriro ere ekiteak merezi duen. Nire ustez gizarte batetan, legezko Erresuma batetan, demokrazia batetan, eta are gehiago gurean, zeinetan epe motz batetan, azken sei urteotan, esateko, sei edo zazpi herri-itaunketa izan ditugun, gure herriak zein bide jorratu nahi dituen garbi adierazita utzi du. Beraz, azken batean solaskideak legeztatzen dituenak, hots, herriaren borondateak, alderdi politiko ezberdinen neurrien arabera, gizarte honek zeren alde jokatu nahi duen agindu eta finkatu baldin badu, nire ustez, herriaren botoak legeztatutako ordezkari horiek bakarrik eta soilik dira arazo honi ekin behar diotenak, irtenbiderik onena zein izan daitekeen ikusteko.

Beraz, talde armatuek ezar ditzaketen baldintzetatik edo eskakizunetatik ezin daitekeela negoziaketa eskerik egin esanez ere, garbi hitzegin dut, hau, azken batean, demokrazia haustea bait litzateke. Baina honekin batera, Estatutoaren egiterapenaren gaia ere oso argi utzi nahi izan dut, eta nire ustez Euskadiko arazo guztiak, demokrazia edo jokabide demokratikoa izate hutsez konpontzen ez direlako utzi nahi izan dut argi eta garbi.

Herri hau aspaldidanik ari da nabari bi gauza eskatzen: alde batetik, azken batean demokraziaren ondorio den norbanakoaren askatasuna ari da eskatzen. Baina, pareko indarrez edo haundiagoz, bere burujabetasunaren garapena ari da eskatzen. Eta Estatutoaren egiterapenaren gaian, horregatik nahi izan dut argia eta erabatekoa izan, bestela, Estatutuaren egiterapenaren bigarren zatia -hau da, herri honi bere burujabetasunean

parte del desarrollo estatutario -es decir, la satisfacción que a este pueblo se le dé en su conciencia nacional-, si no se llega a esa satisfacción suficiente, podemos tener problemas, y creo que en esto hace falta que seamos realistas. Ésta es la verdad y ésta es la reivindicación de este pueblo. Luchamos por la libertad y la democracia, pero al mismo tiempo estamos luchando por nuestra propia identidad nacional.

He dicho también que nuestro Estatuto de Autonomía es un Estatuto singular. Tal como se ha planteado ya por interlocutores que me han precedido o por los que me han precedido en el uso de la palabra, en definitiva el Estatuto de Autonomía fue el fruto de un pacto, y el Estatuto de Autonomía es un pacto en definitiva con el Estado. Y éste es un concepto -el de pacto, el de concierto, el de convenio- que es el que debe seguir manteniéndose. Por tanto, yo espero, y además tengo la plena confianza de que, en este pacto de legislatura que hemos hecho con el Partido Socialista, creo que ellos han entendido también este planteamiento nuestro, y yo confío en que con lealtad, y tratando de ir superando esas desconfianzas que están durando ya mucho tiempo entre Euskadi y el Estado, vayan resolviéndose poco a poco.

Y el otro gran tema que también me preocupaba y he querido plantear ha sido, evidentemente, el de la crisis económica y el del paro. Ahí creo que he hecho una serie de apelaciones. A mí me preocupa la situación de crisis que en estos momentos estamos padeciendo, una situación que además nos está alejando cada vez más de las sociedades desarrolladas. Éste es un reto importante, éste es un reto que va a requerir el esfuerzo de todos, tanto de la Administración pública como de los propios trabajadores y empresarios, y además este esfuerzo va a requerir una colaboración entre el Gobierno vasco y el Gobierno del Estado. Y además, si a esto unimos nuestro ingreso próximo en la Comunidad Económica Europea, razón de más para que haya querido plantear este tema con la amplitud con que lo he planteado en mi intervención, y que además haya formado parte de uno de los capítulos del acuerdo o pacto con el Partido Socialista.

Pero es que todos estos problemas los he querido plantear dentro de una filosofía clara, y esta filosofía ha sido la de un talante abierto, negociador, con la consecución de los máximos acuerdos, porque entiendo que son unos problemas tan graves que difícilmente un único partido en exclusiva puede abordarlos sin la colaboración del resto de grupos políticos presentes en esta Cámara. Porque, en definitiva, soy consciente de que la gobernabilidad de este país exige además estos acuerdos, y precisamente por esto hemos iniciado o pretendemos iniciar esta nueva andadura con un pacto de entrada, y este pacto ha sido con el Partido Socialista.

En varias intervenciones se me estaba preguntando el porqué de este pacto. Yo no voy a ocultar que el origen primitivo de este pacto, evidentemente, es el de conseguir la gobernabilidad de este país. La última consulta electoral ha dado como resultado un 32-32 en esta Cámara, lo cual estaba dificultando esta gobernabilidad. Entonces, ciertamente yo tengo que reconocer que aquí ha habido un sentido pragmático, un sentido práctico de esta realidad. ¿Por qué se ha pactado en concreto con el Partido Socialista? Pues porque hemos considerado que era en definitiva el pacto más conveniente, al menos en este momento, para el país, porque no en vano es el segundo partido de este país y además es el partido que gobierna en el Estado.

Pero, al margen o por encima de estas razones, si

emango zaion atsegina-, atsegin horretara iristen ez bagara, arazoak izan ditzakegula uste dudalako, eta honetan gertarizaleak izan behar dugula uste dut. Hau da herri honen egia eta eskakizuna. Askatasunaren eta demokraziaren alde borroka egiten dugu, baina era berean geure burujabetasunaren alde ari gara borrokan.

Gure Autonomi Estatutua, Estatutu berezia dela ere esan dut. Nire aurreko solaskideek edo nire aurretik hizpidea izan dutenek azaldu duten bezala, Autonomi Estatutua azken batean hitzarmen baten ondorioa izan zen, eta Autonomi Estatutua azken batean Erresumarekin egindako hitzarmena da. Eta irizpide honi -hitzarmenarenari, itunearenari, elkar hartzearenari-, eutsi behar zaio. Beraz, nik uste Alderdi Sozialistarekin egin dugun legegintza-aldi hitzarmen hau, nire ustez beraiek ere ulertu dute gure ikusmolde hau, leialtasun osoz eta Euskadiren eta Erresumaren artean aspaldidanik dirauten susmo txar horiek gainditzen saiatuz, pixkanaka-pixkanaka konponduko delako uste osoa dut.

Eta kezkatzen ninduen eta azaldu nahi izan dudan beste arazo nagusia, ekonomi larrialdiarena eta langabeziarena izan da hain zuzen ere. Horretan zenbait dei egin dudala uste dut. Ni, une hauetan jasaten ari garen larrialdi-egoerak kezkatzen nau, gizarte garatuetatik geroz eta gehiago urruntzen gaituen egoera. Hau herronka garrantzitsua dugu, guztion ahalegina, bai Herri-arduralaritzarena, bai langile eta enpresarien ahaleginа eskatuko duen herronka da hau, eta honez gain Eusko Jaurlaritzaren eta Erresumako Jaurlaritzaren arteko lankidetza ere eskatuko du. Eta gainera honi, Europako Ekonomi Elkartean sartzear egotea gaineratzen badiogu, nire saioan hain zabalki ukitu nahi izateari eta Alderdi Sozialistarekin eginiko hitzarmeneko atal bat osotzeari arrazoizko deritzot.

Arazo hauek denak, filosofia garbi baten barnean azaldu nahi izan ditut, eta hau, hitzarmen nagusien egiteratzearekin elkarrizketari emandako iharduera irekiaren filosofia izan da, oso zaila iruditzen bait zait, arazoak hain larriak izanik, Legebiltzar honetan dauden gainerako alderdi politikoen laguntzarik gabe, alderdi bakar batek soil-soilik arazo hauei aurre egitea. Azken batean, herri honen jaurtzebideak akordio hauek beharrezko egiten dituela jabetuta bait nago, eta horrexegatik hasi dugu edo hastekotan gaude ibilaldi hau, sarrerako hitzarmenez, eta hitzarmen hau Alderdi Sozialistarekin eginikoa izan da.

Zenbait eskuhartzetan hitzarmen honen zergatiaz galdetu didate. Nik ez dut izkutatuko, hitzarmen honen lehen arrazoi, jakina, herri honen jaurtzebidea lortzea dela. Azken itaunketaren emaitza 32-32koa izan da Legebiltzar honetan, eta honek jaurtzebide hau eragotzi egiten zuen. Orduan, noski, ni, hemen egoera honen benetako zentzu bat, daitekeenari helduzko zentzu bat egon dela onartu beharrean nago. Ea zergatik egin den hitzarmen hau zehazki Alderdi Sozialistarekin? Bada, azken batean, une honetan behintzat, herriarentzat hitzarmenik egokiena zelako, ez alferrik, Erresuman jaurtzen duena eta herri honetako bigarren alderdia delako.

Baina, arrazoi pragmatiko huts hauek alde batera

se quiere meramente pragmáticas, lo que sí quiero decirles claramente es que yo espero que, en ese trabajar día a día, este pacto pueda ir rodeándose de un mayor contenido, es decir, de un auténtico espíritu. Efectivamente, en el pacto ha habido dificultades, ha habido dificultades a la hora de ir acercando posicionamientos. Y yo en ocasiones anteriores, cuando he tenido entrevistas y demás, efectivamente he estado diciendo que este pacto no quiere decir ni que el Partido Socialista se ha ido acercando al PNV o se está pasando al PNV, ni que el PNV se está pasando al Partido Socialista. Cada partido, evidentemente, mantiene sus propias señas de identidad. Sin embargo, ambas partes, con este realismo político, en definitiva hemos convergido en unos puntos determinados a partir de los cuales ambas partes, con lealtad, vamos a mantener este pacto. Y yo espero, confío, desearía, desde luego, que este pacto no fuera un mero hecho coyuntural, sino que fuera algo más profundo. Pero, en definitiva, también constantemente he estado apelando en mi discurso, y vuelvo a apelar en este momento, a mi deseo claro de que también otros grupos políticos puedan ir incorporándose a este pacto o, cuando menos, a partes fundamentales de este pacto.

En definitiva, la conciencia clara o la intuición clara que tengo yo es de que nuestro pueblo, nuestras gentes en definitiva, lo que quieren es que los políticos nos entendamos, que haya acuerdos entre nosotros, que tratemos de resolverles sus problemas, y creo que nuestra obligación es tratar de resolver los problemas que tiene esta sociedad. Y creo que los cuatro problemas básicos que he planteado son problemas tan importantes que estoy convencido de que requieren la colaboración del máximo de grupos parlamentarios presentes en esta Cámara.

Respondiendo a cuestiones concretas que me ha ido planteando el representante de Euskadiko Ezkerra, creo que muchas de ellas, ciertamente, son cuestiones muy específicas, muy concretas, que en este momento creo que no procede abordar. Ahora, cuando plantea el tema del foralismo, Fueros, modernismo, etcétera, pues yo tengo que decirle que no estoy de acuerdo con ese planteamiento. No entiendo por qué se está confundiendo foralismo, antigüedad, modernismo, otro concepto, etcétera. Yo creo que el concepto que yo he planteado de vertebración de este país es un concepto moderno, y creo que es un concepto que hoy en día se está practicando en muchas naciones en el mundo, que creo que no son precisamente países atrasados, ni mucho menos. No voy a dar ejemplos, porque creo que está en la mente de todos la multitud de naciones que están configuradas con esta distribución de poder, con esta división de poder entre los distintos niveles institucionales de cada país.

A temas concretos que me planteaba sobre la política de orden público, en principio tendría que decirle que en este momento aún son escasas las competencias que nosotros tenemos al respecto, pero, ciertamente, es voluntad nuestra poder poner en marcha cuando antes la Junta de Seguridad y plantear en esa Junta de Seguridad toda una serie de problemas que están pendientes para ir resolviendo cuanto antes.

Creo que en el tema del pacto básicamente yo he podido entender que en los aspectos fundamentales hay, podíamos decir, acuerdos por parte de Euskadiko Ezkerra. En cuanto al capítulo segundo incluso manifestaba su agrado de oír ciertas cosas que se recogen en ese documento. De todas formas, yo lo que tengo que decirles, tal como ya he manifestado anteriormente, es que este pacto es un pacto abierto y, en definitiva, podrán ir incorporándose al mismo los distintos representantes de

utziz edo arazo hauez gain, nik hauxe esan nahi dizuet argi eta garbi: eguneroko lan horretaz, hitzarmen hau eduki haundiagoz, hau da, benetako xedez bete ahal izatea espero dudala. Izan ere, hitzarmen honetan jarrerak hurbiltzerakoan izan dira zailtasunak. Eta nik, aurrekoetan, elkarrizketak eta, izan ditudanean, esaten aritu naiz hitzarmen honek ez duela esan nahi Alderdi Sozialista EAJri hurbiltzen ari zaionik edo EAJra pasatzen ari denik; ezta EAJ Alderdi Sozialistara pasatzen ari denik ere. Alderdi bakoitzak bere nortasun-ezaugarriei eusten die, noski. Halere, bi aldetakook, denari begiratzeko xede honetaz, azken batean, puntu zehatz batzutan bat egin dugu, eta hauetatik abiatuz, leialtasunez, hitzarmena mantendu egin behar dugu. Eta nik hitzarmen hau, aldian-aldirako gertakizun soila ez ezik, sakonekoa ere izatea espero dut, konfidantza dut eta nahi nuke, noski. Baina, azken batean, nire hitzaldian behin eta berriz gogorarazi dut, eta une honetan berriro egingo dut, beste alderdi politiko batzu ere hitzarmen honi, edo hitzarmen honen funtsezko zenbait zatiri behintzat atxikitzeko dudan nahi bizia.

Batean esateko, gure herriak, gure jendeak, politikook elkar ulertzea, gure artean akordioak izatea, bere arazoak konpon diezazkiogun nahi duela konturatzen naiz eta argi somatzen dut, eta gure betebeharra, gizarteak dituen arazo horiek konpontzen saiatzea dela uste dut. Eta nire ustez, aipatu ditudan oinarrizko lau arazoak hain dira garrantzitsuak, ezen Legebiltzar honetan gauden legebiltzar-talde gehienen laguntza eskatuko dutela sinisturik bait nago.

Euskadiko Ezkerrako ordezkariak aurrean jarri dizkidan auzi zehatzei erantzunez, asko eta asko, egia esan, oso bereziak, oso zehatzak iruditzen zaizkit eta une honetan horiek aztertzeari ez deritzot egoki. Baina, egin duen foralitatearen, foruen, gaurkotasunaren eta abarren aipamena egin duenean, nire ezadostasuna agertu beharrean nago. Ez dakit zergatik ari den foralitatea, antzinatasuna, gaurkotasuna, beste irizpide bat, eta abar nahasten. Nire ustez, nik herri honen egituraketari buruz azaldu dudan irizpidea, gaurko irizpidea da, eta egun, munduko herrialde askotan gauzatzen ari den irizpidea dela uste dut, eta ez dira ez, herri atzeratuak, ez horixe. Ez dut adibiderik jarriko, denon buruetan bait dago honelako botere-banaketaz, herrialde bakoitzaren erakunde maila desberdinen arteko honelako botere-zatiketaz, egituratuta dagoen herrialde kopuru zabala.

Herri-bakeari buruz azaldu dizkidan gai zehatzetaz, funtsean zera esan beharko nioke, une honetan oraindik urriak direla alor honetan ditugun ahalmenak, baina, egia esan, Segurantza-Batzordea lehenbaitlehen eratu ahal izatea da gure gogoa, eta Segurantza-Batzorde honetan, erabakitzeke dagoen arazo pilo bat azaltzea, lehenbailehen konpon daitezen.

Hitzarmenari dagokionean, badaude, funtsean, oinarrizko ataletan, esan genezake, Euskadiko Ezkerraren aldeko adostasunak. Bigarren atalburuari buruz, agiri honetan biltzen diren zenbait gauza entzuteak sortu dion atsegina ere adierazi du. Dena dela, lehen azaldu dudan bezalaxe, hitzarmen hau irekita dagoela esan behar diet, eta azken batean, egoki eritziz gero, Legebiltzar honetako ordezkari ezberdinak hor sartu ahal izango direla.

esta Cámara si lo consideran oportuno.

Por lo que respecta a Coalición Popular, creo que efectivamente me ha ido planteando una serie de retos, aunque al final manifestaba su coincidencia en grandes líneas, y además consideraba positivo este pacto. Yo comprendo que ellos entiendan que tal vez el pacto lógico o natural hubiera sido con ellos, pero, en definitiva, esto no ha sido posible. Nos ha parecido más adecuado, más acertado el pacto con el Partido Socialista. Sigo reiterando, en definitiva, que este pacto también sigue abierto para el Grupo de Coalición Popular.

Y, por lo que respecta al Partido Socialista, tengo que agradecer en principio su favorable impresión del contenido de mi discurso, y, por supuesto, el pacto, evidentemente. Y por lo que respecta a la pregunta que me hacían sobre la Constitución, a ese respecto lo que voy a hacer simplemente es remitirme al contenido del propio acuerdo, del propio pacto. Es decir, en el pacto, en el punto primero, el marco democrático institucional, expresamente estamos comprometidos a suscribir lo siguiente: "La aceptación por las partes de unas reglas de juego comunes acordes con la Constitución y el Estatuto de Gernika es la base de partida para los compromisos a que se refiere este documento. Como consecuencia de ello, el Gobierno vasco y el Grupo Parlamen tario Socialistas Vascos manifiestan su voluntad de cumplir la Constitución, el Estatuto de Autonomía y demás leyes vigentes, así como las sentencias de los Tribunales". Por tanto, esto es voluntad de este candidato a Lehendakari que se suscriba y que se respete.

El Sr. **PRESIDENTE**: Turno de réplica de los representantes de los grupos. *(Pausa.)*

El señor Onaindía tiene la palabra.

El Sr. **ONAINDÍA NACHIONDO**: Parlamentuko Lehendakari jauna eta diputadu jaun-andreok, nik hiru gauza bakarrik esan nahi ni tuzke. Alde batetik, eman diren esplikazioak entzun eta gero guk Lehendakarigai honen kontra botatuko dugula, eta beste biderik ez dugunez, bada, boto zuria emanik, baina ez dugula alde botatuko.

Bigarrenik, gu ez gaudela prest akordio hori sinatzeko. Ez gaudela akordioaren alde, eta ez dugula akordioa sinatuko. Guk uste dugu akordioa beharbada ez dela hain ona, berorren eta zuen taldeak ez duenean firmatu nahi eta bestioi atea zabaltzen zaigunean.

Eta, hirugarrenik, guk ez dugula pakto hori firmatu behar, esateko Konstituzioa akatatzen dugula, "pero" begiratuko dugula legea. Eta ez dugula pakto hori firmatu behar esateko guk Autonomi Estatutua begiratzen dugula, errespetatzen dugula, defendatzen dugula eta horren alde burrukatuko dugula.

Hirugarrenik, ez dugula pakto hori firmatu behar, ez delako gure konbenientziaren frutua, baizik gure konbentzimendu sakona, ez dugula pakto hori firmatu behar Euskal Herriaren pakearen alde burrukatzeko. Ezta denekin lan egiteko, eta, jakina, Euskal Herriko Gobernuarekin ere bai. Eta, beste aldetik, guk uste dugu kaltegarria bada demokraziarentzat, eta guztiz kaltegarria da demokraziarentzat, eta beraz Euskadirentzat, inolako akordiorik ez egotea, guk uste dugu kaltegarria dela danetan akort egotea ere. Guk uste dugu Euskal Herriak behar duela halako "minimum" bat, akordio "minimum" bat. Baina guk nahi dugulako eta gure posturak berdin xamarrak direlako zenbait gai sakon eta

Alianza Popularrari dagokionean, benetan herronka piloa azaldu didala uste dut, nahiz eta azkenean orohar bat etorri eta gainera hitzarmena baikortzat jo. Nik, haiek, agian hitzarmen jatorra eta arrazoibidezkoa haiekin izango zatekeela uste izatea ulertzen dut, baina, azken batean, hau ez da gertatu. Egokiagoa, bidezkoagoa iruditu zaigu hitzarmena Alderdi Sozialistarekin gauzatzea. Berriro diot, batean esateko, hitzarmen honek Alianza Popular Taldearentzat ere irekita darraiela.

Eta, Alderdi Sozialistari dagokionean, nire hitzaldiaren edukiari buruzko aldeko iritzia eskertu beharrean nago, eta noski, hitzarmena. Eta Konstituzioari buruz egin didaten galderari dagokionean, hitzarmenaren, akordioaren, beraren edukira joko dut soil-soilik. Hau da, hitzarmenean, lehen puntuan, demokrazia erakunde-mailan, honako hau berariz izenpetzeko hitza emana dugu: "bi aldetakoek, Gernikako Estatutuarekin eta Konstituzioarekin bat datozen guztion jokabide-arau batzu onartzea, agiri honek ikutzen dituen betebeharrentzako abiaburua da. Haren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Sozialistak Legebiltzar-Taldeak, Konstituzioa, Autonomi Estatutua eta indarrean dauden gainerako legeak, baita auzitegien epaiak ere, betetzeko borondatea adierazten dute". Beraz, hau izenpetu eta bete dadin nahi du Lehendakarigai honek.

**LEHENDAKARI** jaunak: Taldeen odezkarien erantzun-txanda. *(Isilaldia.)*

Onaindia jauna da hizpidearen jabe.

**ONAINDIA NACHIONDO** jaunak: Señor Presidente del Parlamento y señoras y señores diputados, yo querría decir solamente tres cosas. Por una parte, que después de escuchar las explicaciones que se han dado, nosotros vamos a votar en contra de este candidato a Lehendakari, y como no tenemos otro recurso, votando en blanco, pero que no votaremos a favor.

En segundo lugar, que nosotros no estamos dispuestos a firmar este acuerdo. Que no estamos a favor del acuerdo y que no lo vamos a firmar. Nosotros creemos que quizá el acuerdo no es tan bueno cuando usted y los grupos que le apoyan no quieren firmarlo y se nos abren las puertas a los demás.

Y en tercer lugar, que nosotros no tenemos que firmar este pacto para decir que acatamos la Constitución, "pero" que ya respetaremos la ley. Y que no tenemos que firmar ese pacto para decir que nosotros respetamos el Estatuto de Autonomia, lo respetamos, lo defendemos y lucharemos en su favor.

En tercer lugar, que no tenemos que firmar ese pacto, porque no es fruto de nuestra conveniencia, sino un profundo convencimiento, que no tenemos que firmar ese pacto para luchar a favor de la paz de Euskal Herria. Y para trabajar con todos, y por supuesto, con el Gobierno vasco. Y, por otra parte, nosotros creemos que, si es perjudicial para la democracia y totalmente perjudicial para la democracia, y por lo tanto para Euskadi, el no tener ningún tipo de acuerdo, nosotros creemos que es también perjudicial el estar de acuerdo en todo. Nosotros creemos que Euskal Herria necesita un "minimum", un "minimum" de acuerdo. Pero, por otra parte, para reforzar la democracia son necesarios un

funtsezkotan. Baina, bestalde, demokrazia sendotzeko beharrezkoa da Gobernua eta oposizioa. Bestela, alderdi batekin nahiko izango litzateke, eta alderdi bat duten errejimen politikoak denok dakigu diktadura batzuk direla. Eta uste dugu Euskal Herria sendotzeko dela alde batetik akordio-politika, baina akordio-politika hori egiteko beharrezkoa da elkarrizketa politika, eta guk uste dugu elkarrizketa hitza asko aipatu dela, eta batez ere Lehendakarigaiak asko aipatu duela gaur, bai goizean eta bai arratsaldean, baina ez da azkenean elkarrizketa rik egon. Guk egin ditugu, bada, zazpi, zortzi galdera, eta ez dugu inolako erantzunik hartu.

